



Soziolinguistika albistaria

25. zenbakia
2017ko azaroak 3 – azaroak 16

Soziolinguistika Klusterreko albistekak

Azken egunak "Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak: gaurko eta biharko erronkak" jardunaldian izena emateko

Azaroaren 18an amaituko da UEMA eta Soziolinguistika Klusterrak elkarlanean antolatutako jardunaldian izena emateko aukera.

ARRUE ikerketaren 2011-2015 bitarteko emaitzak aurkeztu dira

Donostian egin zen aurkezpena eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzaren aldetik Maite Alonso Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria Lucia Torrealday eta Soziolinguistika Klusterraren aldetik Iñaki Martinez de Luna ikerketaren zuzendaria.

Jendaurrean Erabili proiektuaren lehen fasearen txostena ikusgai

Ikusgai dagoen txostenak 2016 urtean egindako lanaren bilduma egiten du; proiektuaren lehen fasearena. 2017ko udaberrian praktika-komunitateko kideen artean zabaldu zen eta orain ikusgai dago interesa duen ororentzat.

Ikerketak

Gotzon Garate Bekaren III.deialdia egin du Elgoibarko Udalak

(*Elgoibarko Udala*) Bekaren helburua: Gotzon Garateren oroimenez Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak, 2009an hasita, elkarlanean antolatu duten "EUSKARA ALA EZKARA" zikloek emandakoa jaso, aztertu eta gizarteratzeko lan-plana diseinatzea.

Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)

(*Eusko Ikaskuntza*) Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5) Komunitatearen Kapitalen Mapa osatzeko Delphia.

Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

Arabaren euskararen bizirik egotea aztertuko da XXII. Jagon jardunaldian

(*Euskaltzaindia*) 'Araba, euskaraz bidea egiten' izango da goiburua, eta azaroaren 17an egingo da, Montehermoso Kulturunea-Euskararen Etxean (Ortuño aretoa/ 9:30-14:00). Arabako gaur egungo errealitateak abiatuta, aurrera begirako erronkez eta aukerez hausnartzeko a...

Linguapax-ek 30 urte: nazioarteko kongresua azaroaren 23 eta 24an Bartzelonan

(*Linguapax*) Podríem dir, amb certa arbitrarietat com cada cop que cerquem moments fundacionals, que el clima mental favorable a la diversitat lingüística, tal com es manifesta avui encara en el to d'algunes entitats supervivents, va sorgir durant les darreres ...

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren Espainiako Elkartearen XVIII. Nazioarteko Kongresua

(*SEDLL*) Ciudad Realen izango da azaroaren 29a eta abenduaren 1ean. Soziolinguistika Klusterreko kideek parte hartuko dute bertan.

Liburuak eta argitalpenak¹

Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen

(*UEU*) Autoreak: Jone Goirigolzarri Garaizar, Xabier Landabidea Urresti, Ibon Manterola Garate. Liburu honetan euskararen biziberritzearen ibilbidea aztertu dute hainbat ikertzaile eta eragilek, orain arteko ibilbidearen hausnarketa kritikoa eginez eta hainbat esparrut...

Llengua, Societat i Comunicació (15): «La demolingüística. Comptar llengües, usos i persones»

(*LSC-UB*) LSC aldizkariak ikerketa metodo demolingüistiken inguruko zenbakia argitaratu du. Besteak beste, Iñaki Iurrebasok behatutako eta aitortutako datuez jardun du bere artikuluan, euskararen inguruko ikerketen esperientziatik abiatuz.

The Modern Language Journal (101): Beyond Global English: Motivation to learn languages in a multicultural world

(*MLJ*) Udazkeneko zenbakiak, besteak beste, David Lasagabasterren artikulua dakar: Language Learning Motivation and Language Attitudes in Multilingual Spain From an International Perspective (pages 583–596).

Jakin aldizkariaren 221-222 zenbakia kaleratu da

(*Jakin*) Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorriaren arteko harremanaz ari garenean kolektibotasuna eraikitzeke, komunala den hori kudeatzeko eta herrigintza egiteko moduez ari gara. Hau da, kapitalismoaz eta patriarkatuaz harago, bai materialki eta bai identitarioki, ...

Sustaining language use: Perspectives on Community-Based Language Development

(*HABE liburutegia*) How does a language community sustain their language in the face of ever-increasing forces of language shift? This volume, both a textbook and a handbook, is the result of ten years of reflection by the authors in light of SIL International's 80 ye...

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelakoak

"Hizkuntza gutxituen hamabi komunitateren etorkizunerako ametsak bildu ditugu"

(Info7) Batetik, euskalgintzako eragileak irakasle lanetan jarri dituzte eta klase teorikoak eskaini dizkiete. Bestetik, bisita didaktikoak egin dituzte euskararen biziberritze prozesuan aritu diren eta oraindik ere ari direnen esperientzia bertatik bertara ezagutzek...

Arabaren euskararen biziberritzean gako izan diren 16 geltoki

(Argia) 25 urte beteko ditu 2017an Geu elkarteak eta urteurrenaren karietara Zeu zara Geu gogoeta saioak antolatu zituen iragan udazkenean, urriaren 22an eta azaroaren 5ean eta 19an Oihaneder Euskararen Etxean. Hogeitaka lagunek 25 urtean egindako bidea baloratu zute...

